

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroekin harremanetan egoteko hainbat komunikabide sortu ditugu. Gure web orria www.hd.com da, non gure lehorgailu guztien katalogoa dago. Hemen, gure korreo elektronikoa eskuragarri egongo da, hd@gmail.com dena, eta baita gure telefono zenbakia, 943 529 442. Era berean, zenbait sare sozial sortuko ditugu, erosle gazteengandik gertuago egoteko, adibidez, Instagram, Twitter, Facebook, etab.

Webgunean, urteetan zehar aterako ditugun lehorgailu mota desberdinak izango ditugu. Oraingoz ez ditugu lehorgailuak denda fisiko propio batetik salduko, beste enpresa batzuetako dendetatik baizik, eta zuzenean gure enpresari erosteko, web orriaren bidez soilik erosi ahal izango dira. Webgunean, lehorgailu bakoitzak dituen ezaugarriak jarriko ditu, eta lehorgailuan deskonturik badago, erabili ahal izango duzu. Gure produktua momentuz, Espainian bakarrik salduko da eta salmenten arabera gutxinaka zabaltzen joango gara.

Bestalde, posta elektronikoa eta telefono zenbakia ditugu. Posta elektronikoaren bidez erosketa bat egiten duzunean zure eskaeraren jarraipena jasoko duzu, eta eskaintzak edo beherapenak badaude webgunean, bertatik abisatuko zaizu. Gure produktuei buruzko galderarik, iradokizunik edo kezarik baduzu, gurekin harremanetan jar zaitezke telefono zenbakiaren bidez edo korreoaren bidez.

Produktua arrakasta handia izaten badu, denda fisiko propioak egingo ditugu munduko hainbat lekutan, eskaerak nazioartekoak izango dira eta lehorgailu gehiago diseinatuko ditugu, erosleak harritzeko modukoak. Pertsonak iradokizunen bat edo ideia berriren bat pentsatuta badute, telefono zenbakira dei diezagukete, eta guk baloratuko ditugu ematen dizkiguten aukerak.

